

## BILBAO EKINTZA EPEL

### IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat oposizio-lehiaketako sistemaren bidez betetzeko behin bakarrik deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziaren **lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioa**.

**Ekonomia eta Finantza arduraduna izateko lanpostu bat** (euskarazko nahitaezko hizkuntza-eskakizunik gabe) jabetzan betetzeko deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu zuen maiatzaren 24an egindako bileran:

**Lehenengoa.-** Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta hautagaiek aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, emandako behin-behineko kalifikazioak berretsi eta behin betikotzat jo dira.

**Bigarrena.-** Oposizioaren LEHENENGO ARIKETAN GAI izan diren izangaiek lortutako behin betiko kalifikazioa onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso diren ariketako probak gainditu dituztelako. Iragarki honi erantsi zaio zerrenda, eta baztertu egin dira egindako probaren batean EZ GAI izan diren pertsonak.

**Hirugarrena.-** Lehenengo ariketan GAI izan diren pertsonen **dei egiten zaie** Oposizio Faseko Bigarren Ariketa (kasu praktikoa), derrigorrezkoa eta baztertzaila dena, egiteko, jarraian adierazitako egun, ordu eta lekuan; NANa eta idazteko tresnak dituztela etorri beharko dira:

Eguna: **2024ko ekainaren 18a, asteartea**

Ordua: **11:45ean**

Lekua: **BILBAO ARENA Kirol Jauregia (Club Arena aretoa)**, Askatasuna etorbideko 13. zenbakian (Miribilla) 48003 Bilbon.

**Laugarrena.-** Lehenengo ariketan GAI diren hautagaiei bigarren ariketaren (kasu praktikoa) alderdi hauen berri ematen zaie:

- a) Kasu praktikoa bat idatziz garatu beharko da gehienez ere **bi ordutan**. Epaimahaiak proposatutako bi kasuen artean bat aukeratu beharko da ariketari ekin aurretik.
- b) Gehienez ere 20 puntu emango dira, eta gutxienez 8 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- c) Zuzenketa anonimoa izango da, pliken sistemaren bidez, eta ariketa kalifikatu ondoren identifikatuko dira izangaiak.
- d) Bigarren ariketa zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak laster argitaratuko dira, ariketa egin aurretik, hautagai guztiek ezagutu ditzaten.

**Bosgarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintzako presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 121. eta 123. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 24an

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA  
JOSE IGNACIO RISUEÑO SERRANO

**Lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioak**

EXPTE. BE 2022-EST-0004							
EKONOMIA ETA FINANTZA ARDURADUNA							
RESPONSABLE ECONÓMICO-FINANCIERO							
NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo atala Primera parte (24 pt)	Bigarren atala Segunda parte (16 pt) Min.: 6,4 pt	Guztira Total (40 pt) Min.: 16	
***1*707	DE REGIL	SALZER	ANDREA SARA	24,00	9,16	33,16	GAI/ APTO
*900**2	AMONDARAIN	PALOMERO	JON	13,46	1,73	15,19	EZ GAI/ NO APTO
*268*9**	VIARTOLA	ZALDAINENA	JAVIER	23,36	1,46	24,82	EZ GAI/ NO APTO
*274***7	ARTAL	FERNANDEZ	MIREN ESTIBALIZ	13,79	NP	13,79	EZ GAI/ NO APTO
*904*5**	IBARRA	SAINZ	LEIRE	18,89	1,08	19,97	EZ GAI/ NO APTO
*27***67	PERAL	MERINO	MARTA	21,45	11,99	33,44	GAI/ APTO
*27***73	BLANCO	MONTERO	JUAN JESUS	16,50	2,85	19,35	EZ GAI/ NO APTO
*606***3	PAMPLIEGA	ORMAECHEA	ZURINE	6,44	1,96	8,40	EZ GAI/ NO APTO
*063*8**	LAUZIRIKA	URBERUAGA	ITZIAR	20,01	6,75	26,76	GAI/ APTO